



Eskola postua eskatzen dutenak dauden postuak baino gehiago direnean, Eusko Jaurlaritzaren urtarrilaren 9ko 01/2018 Dekretua eta 2021eko abenduaren 14ko Agindua aplikatu behar da. Baremazio honen arabera egingo da:

a) Ikastetxean ikasten edo lan egiten duten senideak izatea (kontzeptu meta ezinak). Gehienezko puntuazioa: 6,5 puntu.

– Neba-arreba bat edo gehiago matrikulatuta daude eskatutako ikastetxean edo hari atxikitako ikastetxeren batean: 6,5 puntu.

– Aitak, amak edo legezko tutoreak: eskatutako ikastetxean edo ikastetxe atxiki batean egiten du lan 5 puntu (puntuazio hori bateraezina da ikaslearen aitak, amak edo legezko tutoreak eskatutako ikastetxearen eragin-eremuan lan egiteagatik ematen denarekin).

b) Bizilekuaren edo lantokiaren gertutasuna (kontzeptu meta ezinak). Gehienezko puntuazioa: 6 puntu.

– Eskatutako ikastetxearen eragin-eremuan dago ikaslearen bizilekua: 6 puntu.

– Eskatutako ikastetxearen eragin-eremu mugakide batean dago ikaslearen bizilekua: 2 puntu.

– Eskatutako ikastetxearen udalerrian dago ikaslearen bizilekua, baina haren eragin-eremutik eta eremu mugakideetatik kanpo: 1 puntu.

– Ikasleak bizilekua Euskal Autonomia Erkidegoan izatea, baina ikastetxea kokatuta dagoen udalerritik eta eragin-eremu zein eremu mugakideetatik kanpo: 0,5 puntu.

– Eskatutako ikastetxearen eragin-eremuan dago aitaren, amaren edo legezko tutorearen lantokia: 2 puntu (puntu horiek bateraezinak dira ikaslearen aitak, amak edo legezko tutoreak eskatu den ikastetxean edo ikastetxe atxiki batean lan egiteagatik ematen diren puntuekin).

c) Familia-unitatearen urteko errenta (kontzeptu metagarriak). Gehieneko puntuazioa: 3 puntu.

– 2020ko errenta-aitorpenaren zerga-oinarri orokorraren eta aurrezkiaren zerga-oinarriaren baturak ez baditu 13.300,00 euroak gainditzen: 2 puntu.

– 2020ko errenta-aitorpenaren zerga-oinarri orokorraren eta aurrezkiaren zerga-oinarriaren baturak zenbateko hori gainditzen badu: 0 puntu.

– Horrez gain, aurreko kasuetan, 0,25 puntu gehituko dira eskatzailea ez den seme-alaba adingabe bakoitzeko.

d) Familia ugariko kide izatea.

– Maila orokorreko familia ugariko kide izateagatik: 1 puntu. – Maila bereziko familia ugariko kide izateagatik: 1,5 puntu.

e) Erditze anizkoitza.

– Ikaslea erditze anizkoitzean jaio delako: puntu 1.

f) Guraso bakarreko familia izatea.

– Ikaslea guraso bakarreko familia batekoa izateagatik: puntu 1.

g) Kooperatiba-bazkide izatea.

– Familia unitateko kideren bat eskatutako ikastetxeko kooperatiba-bazkide izateagatik: 0,5 puntu.

h) Ordezkaritza Organo Gorenaren edo eskola-kontseiluaren ustez garrantzitsuak diren bestelako arrazoiak.

Puntu 1, ikastetxearen ordezkaritza Organo Gorenak erabakitako irizpidearen alde (Organo Gorenaren 2022-01-13ko erabakia).

- Puntu 1, ikasle ohien seme-alabak izateagatik edo ikastolako bazkidearen seme-alaben alde.

i) Beste batzuk:

1.– Desgaitasuna. Gehieneko puntuazioa: 2 puntu.

– Ikasle eskatzailearena: 2 puntu.

– Aitarena, amarena, legezko tutorearena edo anai-arrebetako batena: puntu

2.– Familia-harreraren egoera.

– Ikasle eskatzailearen familia-harrera egoeragatik: puntu

3.– Genero-indarkeriaren biktima izatea.

– Ikasleak, aitak, amak edo legezko tutoreak genero-indarkeriaren biktima izateagatik: puntu

4.– Terrorismoaren biktima izatea.

– Ikasleak, aitak, amak edo legezko tutoreak terrorismoaren biktima izateagatik: puntu 1.